



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa

2023

Urriaren 7tik abenduaren 2ra
Irurita · Viana · Uharte · Leitza
Altsasu · Agoitz · Lesaka · Iruñea



www.bertsozale.eus



GURE
ESEN
TZIA!



Aurkezpena

Iritsi da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 46.ena. Azkenekoa, 2021ekoa, ziurgabetasun erabatekoan egin genuen, pandemia baten erdian, bertso plaza moteldua zelarik, eta kultura arriskuan. Egun, zorionez, bertso plaza berreskuratzen doala esan dezakegu, eta kulturak, mehatxuak mehatxu, gizartearentzat duen balio ezinbestekoa erakutsi du. Bide horretan, ale berri bat gehitzera dator aurtengo txapelketa.

Bi hilabetez, Nafarroako berdeak, horiak eta gorriak zeharkatuko ditu 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Bide bat bertsoarena, euskara Nafarroan barrena barreiatzeko, mila kolore eta mila Nafarroa diren Nafarroa honetan. 29 bertsolarik eman dute izena aurtengo txapelketan, eta behin-aurrekanporaketak igarota, 24 izanen dira lurretan abiatuko den ibilbidean. Abenduaren 2ra arte, zortzi saiotan ariko dira, beste horrenbeste herrietan. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian elkartuko dira batzuen eta besteen bideak, finalean. Bertsolariekin batera, epaileek, gai-jartzailek, antolatzailerak eta hamarnaka laguntzaileek eginen dute posible egitasmoa.

Urteak joan urteak etorri, Nafarroako euskal kulturaren ekitaldi garrantzitsua bihurtu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Baina ez da bat-bateko lorea, urtean zehar egiten den lan isilaren fruitu baizik, eta bertsolaritza transmititzeko egindako lan eskergaren ondorio zuzena. Gozatu eta gozarazteko unea iritsi da. Iritsi da 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa.



IRURITA

Urriak 7, larunbata. 17:30ean, Gizarte Bilgunean



Saioa Alkaiza Guallar, Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Uribarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eneverreaga

UHARTE

Urriak 15, igandea. 17:30ean, Arte Garaikideko Zentroan



Joanes Illarregi Marzol, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia, Julen Zelaieta Iriarte, Beñat Astiz Isasi eta Eki Mateorena Zozaia

Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre

VIANA

Urriak 14, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean



Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Patxi Castillo Graciarena, Urko Gartzia Aleman eta Aitor Irastortza Arrizubieta

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

LEITZA


Urriak 21, larunbata. 17:30ean, Herri Aretoan



Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Altzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta

Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

ARRIETA hestebeteak



ZUBIRI - Nafarroa

www.embutidosarrieta.com

(34)- 948 30 40 09



Nekazal Tresneria - Maquinaria Agrícola

ARoz - BERRI

IRURITA

☎ 948 581 021

ORIKAIN

☎ 948 332 617

irurita@arozberri.com
www.arozberri.com

ALTSASU

Azaroak 4, larunbata. 17:30ean, Iortia Kulturgunean

Iruritako saioko irabazlea eta puntuazioz sailkatuak

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

AGOITZ

Azaroak 11, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean

Vianako saioko irabazlea eta puntuazioz sailkatuak

Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

LESAKA

Azaroak 19, igandea. 17:30ean, Kultur Etxean

Uharte eta Leitzako saioretako irabazleak eta puntuazioz sailkatuak

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

IRUÑEA

Abenduak 2, larunbata. 17:00etan, Anaitasuna Kiroldegian

Finalaurrekoetako irabazleak eta puntuazioz sailkatuak

Gai-jartzaileak: Ainhoa Larretxea Agirre eta Ander Aranburu Arriola

Gai jartzaileak



Ainhoa Iriarte Gorostegi, Ainhoa Larretxea Agirre, Alaitz Rekondo Ferrero, Ander Aranburu Arriola, Elisa Almandoz Irigoien, Irati Agesta Latasa, Izaskun Aleman Etxenike, Kizkitza Mujika Martin, Maialen Belarra Eñeterreaga, Miel Mari Elosegi 'Luze' eta Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

Epaileak



Aimar Sagastibeltza Caballero, Amaia Telletxea Larretxea, Cesar Etxeberria Saez, Joseba Beltza Bengoetxea, Mikel Beaumont Arizaleta, Nerea Bruño Artazkoz eta Saioa Mitxelena Irazoki



**Baserriko esne
jasangarri litro
baten atzean
dagoen guztia
ezagutu nahi duzu?**

**EGIN ERRESERBA
eta zatoz bisitan!**

www.kaikubaserria.eus



Nafarroa sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz.



FINAL-LAURDENAK	IRURITA	Puntuak	VIANA	Puntuak
	Urriak 7, larunbata		Urriak 14, larunbata	
	Saioa Alkaiza		Julio Soto	
	Eneko Fernandez		Xabat Illarregi	
	Sarai Robles		Ekhiñe Zapiain	
	Idoia Granizo		Patxi Castillo	
	Ekain Alegre		Urko Gartzia	
	Egoitz Gorosterrazu		Aitor Irastortza	
	UHARTE	Puntuak	LEITZA	Puntuak
	Urriak 15, igandea		Urriak 21, larunbata	
Joanes Illarregi		Eneko Lazkoz		
Xabier Silveira		Josu Sanjurjo		
Mikel Lasarte		Bittori Elizalde		
Julen Zelaieta		Endika Legarra		
Beñat Astiz		Saats Karasatorre		
Eki Mateorena		Fernando Ziganda		

FINALAURREKOAK					
ALTSASU	Puntuak	AGOITZ	Puntuak	LESAKA	Puntuak
Azaroak 4, larunbata		Azaroak 11, larunbata		Azaroak 19, igandea	
Iruritako irabazlea		Vianako irabazlea		Uharteko irabazlea	
Puntuazioz 2.a		Puntuazioz 1.a		Leitzako irabazlea	
Puntuazioz 3.a		Puntuazioz 4.a		Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 8.a		Puntuazioz 7.a		Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 9.a		Puntuazioz 10.a		Puntuazioz 11.a	
Puntuazioz 14.a		Puntuazioz 13.a		Puntuazioz 12.a	

FINALA	IRUÑEA	Puntuak
	Abenduak 2, larunbata	
	Altsasuko irabazlea	
	Agoitzeko irabazlea	
	Lesakako irabazlea	
	Puntuazioz 1.a	
	Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 3.a		
Puntuazioz 4.a		
Puntuazioz 5.a		



Xabier Madariaga
Kazetaria

Mugiarazten
gaituena gara.

Egitura eta egin beharreko lanak

29 bertsolarik eman zuten izena, eta behin aurrekanporaketak igarota, 24 izango dira txapelketan. Final-laurdenetako fasean lau saio izango dira, eta 18 bertsolari pasako dira finalaurrekoetara: lau saioetako irabazleak eta puntuazioaren arabera hurrengo hamalauak.

Hiru saio izanen dira finalaurrekoen fasean, eta zortzi bertsolari sailkatuko dira finalerako, saioetako hiru irabazleak eta puntuazioaren arabera lehen bostak. Horiek dira txapela lehiatuko duten zortzi bertsolariak, saio bakarrera, finalean.

Final-laurdenak (6 bertsolariko saioak) 13 bertso puntuagarri

- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- ▷ Ganbara:
 - ▷ Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian
 - ▷ Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den neurrian eta doinuan

Finalaurrekoak (6 bertsolariko saioak) 15 bertso puntuagarri

- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- ▷ Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
- ▷ Ganbara:
 - ▷ Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den neurrian eta doinuan

Finala (8 bertsolariko saioa) 15 bertso puntuagarri

- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
- ▷ Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
- ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
- ▷ Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den neurrian eta doinuan
- ▷ Buruz burukoa 9 bertso puntuagarri
 - ▷ Binaka, gai emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
 - ▷ Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
 - ▷ Ganbara:
 - ▷ Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den neurrian eta doinuan

SARRERAK			
	7-16 urtekoak	Bazkideak	Arruntak
Final-laurdenak	5€	7€	9€
Finalaurrekoak	7€	9€	12€
Finala	15€	17€	20€

- ▷ Txapelketako sarrera guztiak www.bertsosarrerak.eus atarian erosi ahal izango dira.
- ▷ Aurresalmenta bidezko sarrerak bukatzen ez badira, leihatilan ere salduko dira sarrerak saioen egunean bertan, 16:00etatik aurrera (15:00etatik aurrera finalaren kasuan).
- ▷ Posta elektronikoz jasotako sarrera edozein euskarritan inprimatu daiteke.
- ▷ Gailu elektronikoren batean ere aurkez daiteke sarrera.
- ▷ Pertsona bakarra sar daiteke sarreran agertzen den kodearekin. Eroslea da sarrerari egiten zaizkion kopia guztien erantzule.
- ▷ Nafarroako Bertsozale Elkarteak ez du sarreraren dirurik itzuliko.
- ▷ Sarrerak ez dira zenbakituak.
- ▷ Erosketa prozesuan arazoren bat baduzu, idatzi bertsosarrerak@bertsozale.eus helbidera.

"Hemen, gozatzea
gustatzen zaigu:
bertsoetaz, euskaraz,
musikaz, lagunetaz..."

Horregatik Lacturale hartu eta...

Bertsoetaz gozatzeraz!!

Lacturale, gozaten laguntzen dizun esnea.





1936ko lehen txapelketa hartako irudi bat, Elizondoko Antxitoanean. Juan Felix Iriarte "Berjinto" atera zen orduan txapeldun.

Txapelketaren historia

1936koa jo daiteke historiako lehen Nafarroako Bertsolari Txapelketa: urte hartan Txirritak jantzi zuen txapela Bertsolari Egunean, baina horren aurretik hiru kanporaketa jokatu ziren, horietako bat Elizondon. Juan Felix Iriarte "Berjinto" nagusitu zen bertan, eta bera da, beraz, Nafarroako lehen txapelduna.

Gerrak eragindako etenaren ostean, 1960an berreskuratu zen txapelketa, Nafarroako Diputazioko Principe de Viana erakundearen eskutik. Sei edizio antolatut zituzten orduan, berriro eten arte.

1979an hasi zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aro berria. 1980tik 2004era, gerra aurretik bezalaxe, Ipar Euskal Herriko bertsolariek ere hartu zuten parte bertan. 2011ra arte, urtero jokatu zen txapelketa. Ordutik, bi urtean behin ospatzen da, Bardoak taldekako txapelketarekin txandaka.



Andres Narbarte 'Xalto' kantuan, ezkerrean Migel Arozamena duela, 1966ko Iruñeko finalean. Bi horiek izan ziren 1960ko hamarkadako bertsolari nabarmenetako bi.

- 1936 Juan Felix Iriarte "Berjinto"
- 1937-1959 ez zen jokatu
- 1960 Andres Narbarte "Xalto"
- 1961 Bautista Madariaga
- 1962 Migel Arozamena
- 1963 Migel Arozamena
- 1964 Andres Narbarte "Xalto"
- 1965 ez zen jokatu
- 1966 Migel Arozamena
- 1967-1978 ez zen jokatu
- 1979 Joxe Migel Argiñarena
- 1980 Mixel Aire "Xalbador II"
- 1981 Jean Pier Mendiburu
- 1982 Joxe Migel Argiñarena
- 1983 Txomin Ezponda
- 1984 Jean Pier Mendiburu

- 1985 Mixel Aire "Xalbador II"
- 1986 Joxe Fermin Argiñarena
- 1987 Ernest Alkhat
- 1988 Mixel Aire "Xalbador II"
- 1989 Ernest Alkhat
- 1990 Manolo Arozena, Eusebio Fagoaga, Antonio Olano, Joxe Fermin Argiñarena (taldekakoa)
- 1991 Manolo Arozena
- 1992 Manolo Arozena
- 1993 Manolo Arozena
- 1994 Bittor Elizagoien
- 1995 Estitxu Arozena
- 1996 Jexux Arzallus
- 1997 Xabier Silveira
- 1998 Estitxu Arozena

- 1999 Bittor Elizagoien
- 2000 Amets Arzallus
- 2001 Amets Arzallus
- 2002 Amets Arzallus
- 2003 Amets Arzallus
- 2004 Xabier Silveira
- 2005 Xabier Silveira
- 2006 Xabier Silveira
- 2007 Xabier Silveira
- 2008 Julen Zelaieta
- 2009 Xabier Silveira
- 2010 Julio Soto
- 2011 Julio Soto
- 2013 Xabier Silveira
- 2015 Julio Soto
- 2017 Julio Soto
- 2019 Julio Soto
- 2021 Saioa Alkaiza



1997ko finaleko irudi bat, Sunbillaan. Mikel Altxuart kantuan, eta atzean, ezkerretik eskuinera, Jexux Arzallus, Xabier Legarreta "Arano", Xabier Silveira, Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien, Oskar Estanga eta Estitxu Arozena. Silveira atera zen urte horretan txapeldun.

Argazkiak: XDX



Saioa Alkaiza, Nafarroako Bertsolari Txapelketako azkenengo txapelduna.

Nafarroako Bertsozale Elkartearen urteko jardueraren babesleak



Nafarroako
Bertsolaritzarekin

www.mariezcurrena.com

2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako erakunde laguntzaileak



2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako hedabide laguntzaileak



EUSKARA KULTURA HERRIAREN GEROA

